


Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko martxoaren 5a / 575. zenbakia

MAITE OTAOLA

DESIDERATA TALDEAN ETA GAUR EGUNGO DANTZA ERAKUSTEN



OSINTXU: SANTU MARTIRIXEN EGUNA BIHAR/5 • PILOTA: AZAGIRRE EUSKAL LIGAKO TXAPELDUN/11

AZALA: MAITENA ARANA / JATORRIZKO ARGAZKIA: CRISTINA SANCHEZ

**2004KO ARATUSTEETAKO KALE-ANIMAZIOKO SARIDUNAK:
HEIDI ETA BERE LAGUNAK**

200 eurotako bonoa
Bedelkarreko jatetxe eta tabernetan erabiltzeko



GREMIOEN GIDA

zure etxearen

osasan onerako



**AGIRRE
MARGOAK**

Ortuibar 1, 3-C
943 76 53 82
Tailerra:
Alkabieta 7

- Orotariko pintaketa lanak

J.M. IZAGIRRE
Igeltseritza

Loidi baserria,
Angiozar
943 76 56 86

- Teilatu, fatxada, sukalde eta bainugelen berrikuntza



Cantero Instalaciones

San Miguel 8/10
607 78 70 58

- Iturgintza
- Akreditazioa: gas ontziratua
- Galdaren mantentzea



Aribar pol. C-4,
S. Juan auzoa
943 76 02 78
670 422 059
F 943 76 02 78

- Pintura
- Dekorazioa

ARREGI AROZTEGIA



Urteaga 20
943 76 11 73
Erakusketa:
Bidekurutzeta 38
943 76 31 03

- Orotariko arotz lanak
- Sukaldeak
- PVC leihoak

BERGARA
Margoak

Amillaga 1, 1. pab.
162 p.k.
943 76 97 31
F 943 76 97 32
bergara.margoak@terra.es

- Orotariko pintaketa lanak
- K-21 agiria



UGARTE
ARROZTEGIA-ALTZARIAK

San Juan 1 A
943 76 54 91
F 943 76 08 04

- Orotariko arotz lanak
- Apainketa, soruak, leihoak, atepak



ATREBENTZIAEZPADA/ Hauteskunde kanpainan esandakoari kasurik egiten diozu botatzerakoan?



MERCHE CUADRADO
38 urte

Askorik ez. Botoa ematera joaten naiz, baina gainontzean politikari ez diot kasu handirik egiten. Kanpainen ere, telebistaz zerba itikusten badut ondo, baina bestela ez naiz ardurutzen.



ANTONIA RUIZ
37 urte

Ez, ideiak tinko eta argi ditut eta pozik nago botatzen dudarekin eta botoa ematen dieran horiek egiten dutenarekin. Esaten dutena baino gehiago, egiten dutena hartzen dut kontuan.




JOSE JULIO MOLANO
51 urte

Ez, ez dut ez entzun ez irakurtzen. Guztiek gauza berak esaten dituzte, bata besteari irainka jarduten dute, eta azkenean, nor bere bidetik joaten da. Beraz, hobe kasurik ez egitea.



MARI JOSE IMAZ
53 urte

Ez askorik. Izan ere, nik pentsatuta daukat botoa zeini eman, eta horri eutsiko diot. Esaten dutenari baino gehiago, alderdi bakoitzaren ibilbideari erreparatzen diot nik.



LUCIANO BALADRON
38 urte

Ez, ez diet kasurik egiten eta botorik ere ez dut ematen. Ez dut esperantzarik inongo alderditan, beraz, jartzen didatenera moldatu beste erremediorik ez zait geratzen.



MIRIAN INTSAUSTI
37 urte

Ez, nire erabakia hartuta daukat eta ez dut aldatuko. Normalean iluntzeetan ikusten ditut, telebistaz, hauteskundeen gaineko berriak, baina ez diet kasu handirik egiten.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK SEMINARIOAN APARKATZEN DUTENEI

Joan zen astean neska-mutiko koadrila bat etorri zen gurera, Seminarioan autoa aparkatzen dutenekin haserre. Antza denez, Victoriano Gallastegi alkatearekin ere izan dira arazoaren berri emateko, baina auto gidariak jarraitzen dute Seminarioan, euren jolasgunean, aparkatzen. Han ez dutela autorik ikusi nahi esan ziguten. /E.M.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /6

KIROLAK /11

KULTURA /12

Txorimalo Lehiaketa

Jardun elkarteak Txorimalo Lehiaketa deitu du Erramu Zapaturako, apirilaren 3rako.

Bikuña boccia txapelketan

Espainiako boccia txapelketan hartuko du parte, asteburuan, Aritz Bikuñak Euskadiko Selektioarekin.

Musika aste bukaeran

Aste bukaera honetan hainbat kontzertu izango dira Bergarako gaztetxean eta Jam aretoan.

ASTEKODATUA

6

BERGARAR ANTIXINTXIKA TRIATLOI TALDEAN

Debagoieneko Antixintxika Triatloi Taldeak hasi du denboraldia, eta aurten guztira 38 lagun izan-go dira bertan. Horietatik sei bergararrak dira, eta tartean, taldeko bi emakumeetako bat.

BESTEKEESANA

“Euskal Herrian dantzaren munduan arrakasta lortzea oso zaila da, benetan. Nik hainbat urte eman ditut mundu honetan eta ikusi dut hobe dela kanpoan, atzerrian, arrakasta lortzea hemen, Euskal Herrian, aintzat hartua izateko. Beti daude traba pila bat. Gu, dena den, gustura gaude. Lan egin behar da, eta hori argi daukat. Nik, adibidez, ez diot ni naizelako. curriculum bikaina daukat, eta hala ere, dantzaren mundu honetan dabilen jendeak baino ez nau ezagutzen. Dantzatik kanpo ez naiz hain ezaguna. Ez dut bilatzen jendeak kaletik niri sinadurak eskatzea, baina egiten dudan lan guztiaren errekonozimendua jasotzea asko kostatzen da”
EDU MURUAMENDIARAZ / Dantzaria eta Aukeran dantza taldeko zuzendaria
‘Deia’/04-03-02

BERAIEKDIÑOÈ/ Lander Juaristi



Ostrukak

Ostrukak egiten ez duen lez, burua egunerokotasunaren zulo erosotik atera dut! Gero eta gehiago kostatzen zait egia esan... Israeldar gobernuak harresi bat eraikitzen dihardu palestinarren lurretan, bertako herriak isolatzen ditu, apartheida bultzatu, eskubideak zapaldu, eta Hagako tribuna-lari adarra jotzen dio; bere legitimitatea ukatuz, ate aurrean sufrimenduaren monopolioa aldarrikatzeko manifestazioa finantzatu.

Pasa den astean Rif inguruan lurrikara; 600 hildako inguru, naturaren ostiko honek Marokoko erreinuaren makillajea hankaz gora bota duela dirudi! Rif inguruko biztanleek berriro ere sumatu dute beraiena ere ba omen den erregearen itxurakeria; Munduak ikus dezala, errealitateak ukatzen duena! Bost axola Rifeko biztanleen beharrak, garrantzitsuena Marokok munduaren aurrean ematen duen irudia da!

Eta bitartean Ánsar jauna bere aginteko azken egunetan, “Perejil” irlaren errekonkistan parte hartu zuten militarrek omentzen! Patetiko! Eta bai! Aznarrek agur esaten digu, badoala bibote txikitxoek klubeko azken agintaria; eta nor izango da bere ondorengoa? Hasi da lehiaketa! Hemen da zirkoa! Hasi dira marketin kanpainak, hautagaiak saltzeko momentua da. Dirua barra-barra produktuaren alde positiboak saltzeko, zein jatorrak diren guztiak, zein adeitsuak, zein... politikoak!

Zer egin honen aurrean? Gertutasunetik abiatuta baina kanpora begiratzeko beldurrik gabe. Hitz egin, idatzi, jar ditzagun ideia eta proiektuak mahaigainean, sor ditzagun jende eta kolektiboen arteko gune irekiak. Herri mugimenduan, gaztetxean, baita 20 urte beteko dituen Txapa irrati librean ere! Utz diezaiogun ostruka izateari eta astin dezagun kanpoan dagoen mundu aldrebes hau!

“Utz diezaiogun ostruka izateari eta astin dezagun kanpoan dagoen mundu aldrebes hau”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Irati Agirreazaldegil,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereziabar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 5
CAMACHO, Oxirondo 4..... 943 76 11 74

ZAPATUA, 6
ZABALA, Barrenkalea 25..... 943 76 16 87

DOMEKA, 7
ZABALA, Barrenkalea 25..... 943 76 16 87

ASTELEHENA, 8
GUALLAR, San Antonio 5..... 943 76 11 05

MARTITZENA, 9
ESTELLA, Matxiategi 5..... 943 76 19 63

EGUAZTENA, 10
MOZOS, Iparragirre 2..... 943 76 12 15

EGUENA, 11
CAMACHO, Oxirondo 4..... 943 76 11 74

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda)..... 943 03 54 00

Bergarako Udaltzaingoa..... 943 77 91 06

Antzuolako Udaltzaingoa..... 943 76 62 46

Ertzaintza..... 943 53 47 20

Osasun etxea..... 943 76 24 40

Asepeyo..... 943 76 16 43

Pakea..... 943 76 13 49

Angiozarko medikua..... 943 78 90 27

Antzuolako medikua..... 943 76 62 23

Odol emaleak..... 943 76 16 24

Alkoholiko Anonimoak..... 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxiak..... 943 76 19 50

UDALA

Bergarako Udaletxea..... 943 77 91 00

Antzuolako Udaletxea..... 943 76 62 46

Udal Artxiboa..... 943 77 91 32

Igerilekuak..... 943 76 20 51

Kultura etxea..... 943 77 91 58

Liburutegia..... 943 77 91 62

Kirroldegia..... 943 76 56 41

Mizpirualde egoitza..... 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia..... 943 76 14 92

Erregistroa..... 943 76 13 15

Jardun..... 943 76 36 61

Idolaz..... 943 76 65 08

Erretiratuen etxea, Bergara..... 943 76 21 40

Antzuolako erretiratuen elk..... 943 76 62 71

Postetxea..... 943 76 26 85

Bedelkar..... 943 76 04 68

Akulu AEK..... 943 76 05 18

Udal Euskaltegia..... 943 76 44 53

Bergarako notariotza..... 943 76 10 73

MEZAK

San Pedro
Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.

Santa Marina
Domekak: 11:00, 13:00.
Zapatuak: 19:00.

Sierbak
Lanegunak: 19:30

Osintxu
Domekak: 12:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu
Domekak: 10:30.

Ubera
Domekak: 10:30.

San Juan
Domekak: 11:00.

Elorregi
Domekak: 10:30.

Labegarieta
Domekak: 11:00.

San Lorenzo
Zapatuak: 20:00.

Angiozar
Domekak: 11:30.

Moja Zaharrak
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 11:00.

Mizpirualde
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30.

Antzuola
Domekak: 09:00, 11:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:30.

Uzarraga
Domekak: 10:00.

Elgeta
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 19:30.
Domekak: 12:00.

URTE-MEZAK

Santa Marina
Hileko bigarren domekan, 10:30ean eta 13:00etan.

San Pedro
Hileko hirugarren domekan, 09:30ean eta 12:30ean.

OHARRAK

1978AN JAIOTAKOEN BAZKARIA MARTXOAREN 13AN

1978an jaiotako bergararren bazkaria martxoaren 13an Txarrantxa jabetxean. Izenematea (20 euro) Euskadiko Kutxan (3035 0009 1900 9007 0394).

1954AN JAIOTAKOEN IRTEERA ERRIOXARA APIRILAREN 3AN

1954an jaiotako bergararrek Errioxara irteera egingo dute apirilaren 3an. Irteera 08:30ean izango da Frontotik. Izena emateko epea martxoaren 26ra arte zabalik Euskadiko Kutxan (3035 0009 1400 9110 8913).

'MEMIN'-EN ALDEKO IRTEERA ZAPATUAN

Inigo Martinez *Memin* zenaren aldeko mendi irteera egingo dute haren lagunek bihar, zapatua. San Martin plazan elkartuko dira, 09:30ean, eta Irukuru-tzetara igoko dira.

JARDUNENAGENDA

ASTE BUKAERAKO AGENDA

Txapligu taldekoek irratsaioa egingo dute bihar, zapatua, Txapa Irratian. Arrizuriagan elkartuko dira, 16:00etan. Txiskrilabi taldekoak, berriz, bihar, zapatua, eskulanak izango dituzte Udal Euskaltegian, 16:00etan.

TXAPLIGU TALDEAREN IRTEERA

Txapligu taldekoek irteera egingo dute martxoaren 19tik 21era Eginoko aterpetxera. Prezioa 40 euro da. Izena emateko epea martxoaren 8an bukatuko da.

TXISKRILABIKOAK ZARAUTZERA

Txiskrilabi taldekoak Zarauzko Etxe Txiki aterpetxean izango dira martxoaren 19tik 21era. Argibideak Jardunen, 943 76 08 19 telefono zenbakian.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorenzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN

Nesken futbol taldea osatu zuten Bergaran

Bergara KEk nesken futbol taldea osatu zuen orain dela 10 urte, 1994ko martxoan. Taldean, 16-21 urte bitarteko 33 neska zeuden, Bittor Agirrebarrena eta Felix Barrocal entrenatzaileen aginduetara. Hurrengo denboraldian erregional mailan lehiatzea zen helburua.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Gonaiza"



Guraizak, artaziak.

ASTEKOPELIKULAK

'EL JURADO'

ZUZENDARIA: GARY FLEDER. AKTOREAK: JOHN CUSACK, GENE HACKMAN, DUSTIN HOFFMAN.

HARIA. Rankin Fitchek epaimahaiak manipulatzan ditu. Armak saltzen dituen enpresa handi baten enkargua jasoko du, eta epaimahaiko bat estu hartzen hasiko da Fitch.

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTAUZIOA: ●●●●●

'LAS INVASIONES BÁRBARAS'

ZUZENDARIA: DENYS ARCAND. AKTOREAK: REMY GIRARD, STEPHANE ROUSSEAU.

HARIA. Remy 50 urteko gizon bat da, eta gaixotasun larria du. Bere seme Sebastianekin aspaldian ez du harreman onik, baina semeak aitaren lagun onenak biltzea lortuko du... Oscarretan, atzeritar film onenaren saria jaso berri du.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, hilaren 5ean, 22:30ean.

PUNTAUZIOA: ●●●●●

HAUGIROA!

MINIMOA -1°C
Astelehena, 1

MAXIMOA 9°C
Martitzena, 2

ASTEKO EURIA (l/m²) 111 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 25	5 °C	2 °C	2,5 l/m²
Eguena, 26	5 °C	2 °C	11,8 l/m²
Egubakoitza, 27	4 °C	-1 °C	48,9 l/m²
Zapatua, 28	3 °C	1 °C	34,3 l/m²
Domeka, 29	6 °C	0 °C	12,8 l/m²
Astelehena, 1	4 °C	-1 °C	0,8 l/m²
Martitzena, 2	9 °C	0 °C	- l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

'LA VIDA QUE TE ESPERA'

ZUZENDARIA: MANUEL GUTIERREZ ARAGON. AKTOREAK: JUAN DIEGO, LUIS TOSAR, MARTA ETURA.

HARIA. Pas haranean kokatutako istorio bat da honako hau. Severoren heriotzarekin amaituko da haren eta Gildo alargunaren arteko borroka. Behi batengatik borroka eta maitasuna azalduko dira istorioan.

TOKIA ETA ORDUA. Zinekluba. Egue- nean, martxoaren 11n, 20:00etan.

PUNTAUZIOA: ●●●●●



Musika eta liburuak



Ibargarai 12 - 20570 BERGARA Tel.: 943 76 40 50 Faxa: 943 76 23 52
bergara@megadenda.com http://www.megadenda.com

FERIA/ Eguerdi partean garai bateko egur langintza nola egiten zen azalduko dute plazan

Azoka, erakustaldiak eta bertso afaria bihar Osintxun, Santu Martirixen Eguna ospatzeko


EDU MENDIBIL

Santu Martirixen Eguna ospatuko dute bihar, zapatua, Osintxun. Goizean zehar, Osintxuko baserriarren produktuen azoka izango da eta gauerako, berriz, bertso afaria iragarri dute Txuringon, Unai Iturriaga eta Igor Elortzarekin.

Osintxuko Txurrunilo elkarteak Santu Martirixen Eguna berreskuratu zuten orain dela lau urte. Ekimenak harrera beroa izan zuten, eta biharko ere programa interesgarria osatu dute. Esan bezala, Osintxuko baserriarren produktuen azoka goizean izango da zabalik, 10:00etatik 14:30ak bitartean. Nekazaritza produktuei dagokienez, hiru postu jarriko dituzte eta Mugarriko Luis Mari Zangituk ere sendabelarrak eta bestelako produktuak eramango ditu feriara. Artisanu lanen kasuan Javier Astigarraga tailak egiten jardungo du eta Milagros Osorok, berriz, artilezko produktuak landuko ditu jende aurrean. Ohikoa denez, talogileak ere izango dira biharko azokan, eta egun osoan, Aintzane eta Nerea trikitilariak arituko dira giroa alaitzen.

ERAKUSTALDIK EGUERDI PARTEAN

Eguerdian partean garai bateko egur langintza nola egiten zen azalduko dute Iñaki Alberdik, Luis Gantxegik, Fermin Gallas-tegik, Jose Mari Aristimuñok, Valentin Larrañagak eta Xabier Gantxegik. Lehengo zerratokiarekin arituko dira. Ondoren, Moises Azpiazu dantza taldeko nes-



Goizean zehar, nekazaritza eta artisau produktuen azoka izango da Osintxun.

ka-mutikoez dantza saioa egingo dute Osintxuko plazan, 12:30ak inguruan, hain zuzen ere.

Jarraian, *Bihurri* eta Arbizu aizkolarien lana ikusteko aukera izango dute Osintxura hurbildutakoek. *Bihurri*-k eta Arbizuk orga jokoarekin egingo dute saioa, eta aitzurrarekin (esku bakarrekin) indarrak neurtuko dituzte. Bukatzeko, motozerrarekin

*Eguerdian partean,
garai bateko egur
langintzaren
erakustaldia
egingo dute*

lehiatuko dira. Batoren zein bestearen aldekoak izango dira Osintxun, eta, honelakoetan gertatzen den moduan, saltsarik ez da falta izango. Ernesto Ezpeleta *Bihurri*-k zeresana eman du aspaldian: Eibar futbol taldeak Kopa Txapelketan Real Madrilen aurka jokatu zuenean, Santiago Bernabeu futbol zelaiaren kanpoaldean erakustaldia egin zuten.

BERTSO AFARIA TXURINGON

Egunari amaiera emateko, gauean bertso afaria izango da Txuringon, 21:00etan. Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariak izango dira ohorezko gonbidatuak. Izenematea Txuringon bertan egin daiteke, 943 76 48 63 telefono zenbakian. Nerea eta Aintzane trikitilariak ere izango dira bertso afarian.

Presoen eskubideen aldeko mozioa onartu zuen udalbatzak

E.M.

Aralar alderdiak presoen eskubideen aldeko ez-arazuko proposamena aurkeztu zuen asteleheneko udalbatzarrean. Aurretik Gipuzkoako Batzar Nagusiak onartutako testua EAJ-EA koalizioa eta Aralarako zinegotzien aldeko botokoekin onartu zuen herriko udalbatzak; PSE-EEko zinegotziak ezezko botoa eman zuten eta PP eta Ezker Batuko zinegotziak ez ziren asteleheneko bilkuran egon.

Benetako bake prozesua bultzatu eta gauzatzeko urratsak ematekotan, gatazkaren giza izaeratik abiatu behar dela aldarrikatzen du testuak: "Honetarako, guztion sufrimendua aitortu eta onartu behar dugula pentsatzen dugu,

inolako salbuespenik gabe eta giza urraketen egilea edozein delarik ere".

Presoen Euskal Herriratzea aldarrikatzen du testuak: "Gure ustez garrantzi berezia du sakanaketaren ondorioz presoen senideek jasaten duten doaneko sufrimendua ekiditeak. Beraz, gaur egungo legediaren gauzatzeko eskatzen duen beza eta oinarriko giza printzipioei jarraituz, preso dagoen euskaldun orok zigorra bere inguru sozial eta familiarrean bete dezala aldarrikatzen dugu, hau da, Euskal Herriko espetxeetan".

Era berean, gaixotasun sendaezinak dituzten presoen berehalako askatasunaren alde egiten du proposamenak: "Ildo honetatik, duela gutxi espetxe-

ratua izan den Manu Azkarate Tolosako herritarren behin betiko askatasuna eskatzen dugu. Halaber, bere senideei elkartasuna adierazi nahi diegu, giza eskubideak hausten diren guztietan egiten den beza". Testuaren berri Espainiako Barne Ministerioari, Espetxe Zuzendaritzari eta Espainiako Estatuak Hego Euskal Herrian dituen gobernu ordezkariak ematea onartu zen.

UDALEKO ORDEZKARIAK KUTXAN

Bestalde, Kutxan Bergarako Udalarri dagozkion kontseilari orokorrak Victoriano Gallastegi alkatea eta Juanjo Arrieta EAJ-EAko zinegotzia izatea onartu zuten. Aralar alderdiko zinegotziak abstenitu egin ziren egindako bozketan.



Manu Azkarateren alde otsailaren 7an Donostian egindako manifestazioko irudia.



Aurkefütako txorimaloak Erramu Zapatuko Ferian egongo dira ikusgai, 11:00etatik aurrera.

ARTXIBOA

JAIK/ Lehiaketaren X. ekitaldia jokatu da Erramu Zapatuan, apirilaren 3an

Txorimalo Lehiaketa Erramu Zapatuan Jardunen eskutik

EDU MENDIBIL

Jardun elkarteak antolatuta, Txorimalo Lehiaketa egongo da Erramu Zapatuan, apirilaren 3an. Aurtengoa lehiaketaren X. ekitaldia izango da. Aurreko urteotan moduan, adinaren arabera hiru talde bereiztuko dituzte. Izenematea martxoaren 26ra arte zabalik dago.

Erramu Zapatuko ekitaldien artean Txorimalo Lehiaketa egongo da aurten ere. Txorimalo Lehiaketak harrera ona izan du orain

arte eta aurtengoa X. Ekitaldia izango da. Gazte eta nagusiek erantzun ona eman diote azken urteotan Jardunen ekimenari.

Esan bezala, Erramu Zapatuko Feriaren barruan egongo da lehiaketa, apirilaren 3an hain zuzen ere. Bakarka zein taldeka parte hartzeko aukera egongo da eta txorimaloak egiteko orduan edozein material erabil daiteke. Txorimalo bakoitzak oinarri edo ardatz bat eraman beharko du, lurrean tinko eta zutik egon dadin. Txorimaloarekin batera esaldi bat aurkeztu beharko da

ADINAREN ARABERA, HIRU TALDE

Adinaren arabera, hiru talde bereiztuko dituzte: 12 urtera artekoak, 12-60 urte bitartekoak eta 60 urtetik gorakoak. Gaztetxoek taldeko onenek egun bateko bidaia eskuratuko dute sari gisa eta beste bi taldeetan, irabazleek 90 euro eta bigarren saridunek 60 euro eskuratuko dituzte. Esaldi onenarentzat ere 60 euroko saria egongo da. Izena emateko azken eguna martxoaren 26ra arte izango da zabalik Jardun elkarteak Errotalde jauregian duen bulegoan.

Martxoaren 14ko hauteskundeetan 57 herritar izango dira lanean

E.M.

Udalbatzarrean egindako zozketaren arabera 57 herritari lan egitea tokatu zaie martxoaren 14ko hauteskundeetan. Bergaran 19 hauteskunde-mahai jarriko dituzte datorren domekan.

Hauteskunde-mahaiak honela banatuko dira: Seminarioan bederatzi, Matxiategin bost, Martokon lau eta Ibarra bakar. Seminarioan azken hauteskundeetan baino mahai bat gehiago izango da, bederatzi guztira. Udalbatzarrean egindako zozketaren arabera, Seminarioko mahaiburuak Isabel Barquero, Mireia Murgiondo, Mikel Gotzon Azkarate, Benigno Menor, Jose Maria Garcia, Jose Maria Diaz, Juan De la Rosa, Agurne Barruso eta Soledad Matilla izango dira.

Aranzadi Ikastolan, Boni Las-



ARTXIBOA

12.557 lagunek osatzen dute errolda.

kurain pasealekuan, bost mahai izango dira; Joseba Etxabe, Maria Dolores Etxezarreta, Jon Buruaga, Mari Luz Oregi eta Jose Mari Gisasolari tokatu zaie mahaiburu lanak egitea.

Martokon, berriz, beste lau mahai izango dira, Andres Cachafeiro, Jon Otaegi, Andoni Fernandez eta Alberto Roldanen ardurapean eta, azkenik, Ibarra mahai bakarra jarriko dute. Elena Egiluz izango da bertako mahaiburu.

Esan bezala, mahaiburu bakoitzarekin beste bi mahaikide egongo dira. Beraz, 57 lagun izango dira lanean datorren martxoaren 14an. Hauteslekuak, ohikoa denez, 09:00etatik 20:00etara izango dira zabalik.

12.557 LAGUN ERROLDAN

Udaleko erroldaren arabera, 12.557 herritarrek izango dute botoa emateko eskubidea. Joan zen maiatzaren 25eko udal hauteskundeetan 12.797 lagunek osatzen zuten hauteskunde-errolda. Beraz, 240 lagun gutxiagok eman ahal izango dute botoa datorren domekan.

LABUR

Emakumearen eguna dela-eta, BEKEk elkarretaratzea deitu du astelehenerako

Emakume Langilearen Eguna ospatzeko, Bergarako Emakume Kultur Elkarteak elkarretaratzea deitu du astelehenerako, martxoak 8. BEKEk deitutako elkarretaratzea San Martin plazan egongo da, 12:15etik 12:30era. Herritarrei parte hartzeko dei egiten diete.

Bestalde, arratsaldean, BEKE, Helduen Eskola eta yoga taldeko emakumeek merienda egongo dute Artatsen, 17:00etan. Inaki Quintanillak alaituko du ondorengo dantzaldia.

Mendekoste jaietako programaren azala egiteko lehiaketa deitu du Udalak

Udalak Mendekoste jaietako programaren azala egiteko lehiaketa deitu du. Bergaran bizi edo erroldatutako edozein pertsonak har dezake parte lehiaketan. Kartelek 46x61 zentimetroko neurria izan beharko dute. Lanak paperean inprimatuta edo disketean aurkeztu ahal izango dira. Ondoko testua eraman beharko dute: *Pertsekoste jaiak 2004 Bergara*.

Irabazleak 600 euro eskuratuko ditu. Lanak jasotzeko epea martxoaren 31ra arte izango da zabalik, kultur etxean.

Zezen Zaleak taldeak VII. Abdon Juaristi pintura lehiaketa deitu du jaietarako


Zezen Zaleak taldeak VII. Abdon Juaristi pintura lehiaketa deitu du. Aurreko ekitaldietan bezala, kartelen gaia "Zezenak Bergaran" izango da. Estiloa eta teknika librea izango dira. Neurria, gutxienez 55x46 cm-koa, eta gehienez 146x114 cm-koa izango da.

Irabazleak 1.000 euro eta plaka oroigarria eskuratuko ditu. Lanak kultur etxean aurkeztu beharko dira, maiatzaren 6tik 13ra bitartean.

Elkarri giza erakundeak sinadura batzeko kanpainarekin jarraituko du bihar, zapatua

Alderdien mahai anitz baten aldeko sinadura batzea egongo du Elkarri bihar, zapatua. Elkarri sinadura batzeko kanpainari ekin zion urrian, eta helburua da alderdien mahai anitz baten alde 100.000 sinadura lortzea.

Esan bezala, bihar, zapatua, goizez, San Martin plazan, Zurra-deron, Simon Arrietan eta Osintxun batuko dituzte sinadurak eta arratsaldean, Simon Arrietan eta San Martin plazan.



Autoen gaineko zerga ordaintzeko epea

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea zabalik dago. Aurtengo zergaren errolda 2004ko otsailaren 25ean onartu zuen Udalak, eta orain, 30 eguneko epea zabaldu du errolda horren aurkako errekurtsioak aurkezteko. Bestalde, zerga ordaintzeko borondatezko epea maiatzaren 28ra arte dago zabalik.



Ezkerretik hasita, Alex Lakuntza, Pilar Etxaniz Kongresurako zerrendaburua, Oxel Erostarbe eta Ainhoa Larrañaga, prentsaurrekoan.

Rafa Diezen eta Elkororen mitina martitzenean

E.M.

Ezker abertzaleak deituta, Rafa Diez LABeko idazkariak eta Jose Luis Elkoro Bergarako alkate ohiak mitina egingo dute martitzenean, hilaren 9an, Novedades aretoan, 19:30ean hasita.

Rafa Diez eta Jose Luis Elkoro hizlarienez gain, trikitilariak eta txalapartariak ere izango dira martitzeneko ekitaldian. Eta Iñaki Gabilondok pare bat kantu eskainiko ditu. Aurkezlea Ainhoa Agirreazaldegia izango da.

Bestalde, hitzaldia eta bideo emanaldia izango dira Angiozarren eta Osintxun, eguaztenean eta eguenean, hurrenez hurren, 19:30ean.

Era berean, Lizarra-Gara-

zitik Bergarako proposamenera leloa irudikatuz, zazpi lizar landutako dituzte bihar, zapatua, Zurradero parean, saihebidetaren azpiko zelaian, 11:00etan. Eta, zapatuan, Donostiako Belodromoan egingo den ekitaldi nazionalera joateko autobusak aterako dira frontoitik, 16:00etan.

HAUTESKUNDEETARAKO DEIA

Bergarako Proposamenaren aldekoek ezkertiar abertzaleei dei egiten diete martxoaren 14ko hauteskundeetan Espainiari ezetz esateko. Euren boto-txarteak ez daukate norbanakoen izen-abizenik, Euskal Herria izena baizik: "Euskal Herria aitortzen dugulako eta autodeterminazioaren alde egiten dugulako".

AZPIEGITURAK / Sustapen Ministerioaren eta Jaurlearitzaren jarrera salatu zuten eguaztenean

Aralar-Zutik koalizioa, AHTren proiektuaren kontra

EDU MENDIBIL

Aralar-Zutik koalizioak Abiadura Handiko Trenaren gainean azken asteotan izandako hainbat gertakari salatu zituen eguaztenean Angiozarren, prentsaurrekoan. Ainhoa Larrañagak esan zuenez, garraioaren arazo larria ez da AHTrekin konponduko.

Aralarko kideek salatu zuten, Sustapen Ministerioak Euskal Y-aren 46 zati egiteko lanak onetsi ditu eta Jaurlearitzak erabakia

txalotu du. Ainhoa Larrañagak PPK, PSOEek, EAJk eta EAK duten jarrera gogor kritikatu zuen eta lan horiek "ez bururik ez hankarik" ez dutela gaineratu zuen.

EUSKAL 'Y'-AREKIN ARAZOAK LARRITU
AHTren proiektuak garraioaren arazoa konponduko ez duela esan zuen Larrañagak. Hori beharrezkoan, beste lau arazo ekarriko dituela adierazi zuen: "Garraio arazoarekin segitzeaz gain, ingurumenean arazo larriak izango ditugu, kutsaduragatik eta gure mendi eta ibarrak txikitzeagatik, hain zuzen. Bestalde, beste

edozein inbertsio egitea baldintzatuko du Euskal Y-ak, eta lurraldeko eremuen arteko ezberdintasunen sakontze larria ekarriko du, proiektu horrek hiriburuak hurbildu eta herriak zatitu eta urruntzen dituelako".

Horregatik guztiagatik, Aralar-Zutik koalizioak ezezko biribila ematen dio Euskal Y-ari: "Garraioaren arazo larria konpontzeko bide sare logikoa eta ekologikoa bultzatu nahi dugu, daukagun arazoei erantzungo dien bide sare, eta bai sozialki, ekonomikoki eta ekologikoki onuragarria izango dena".



ASTELEHENENGO GOIENKARIA

Bergarako Proposamenaren aldekoek zapatuan egindako agerraldia.

LYON-REALA SAIO BEREZIA

GOITB, debagoiendarrekin Lyonera!


LYON-REALA Saio berezia

Egubakoitzean, martxoaren 12an, 20:30ean

Goitb
Goiena Telebista

Ikusiko duzu!





BUSTAMANTERI OPARIA BERGARATIK

David Bustamante kantari kantabriarrak jarraitzaile ugari ditu, baita Euskal Herrian ere. Datorren martxoaren 25ean urteak beteko ditu San Vicente de la Barquerako kantariak, eta hori dela-eta, lagun talde batek —Bergarako jarraitzaileak tartean— Bergaran opari eder bat erosi berri dio. Jakin dugunez, sei laguneko talde batek poltsikoko erloju dotorea oparituko dio Bustamanti. Martxoaren 7tik 28ra bitartean Ameriketara joatekoa da Bustamante, eta beraz, itsasoaren beste aldean ospatuko du urtebetetzea. Hala ere, Bustamanteren jarraitzaileek haren lagun baten bitartez eman nahi zioten oparia kantariaren familiari. Azkenaldian Bustamante familiak izandako polemika dela-eta, atzeratu egin dute opari ematea. Apirilaren 23an Madrilen kontzertua egingo du OT-ko izarrak, eta egun hori izan daiteke aproposa oparia emateko. Kontzertura joan nahi dutenek helbide honetara idatz dezakete: atalai_bustamante@hotmail.com. Ea Bustamante Bergarara etortzera animatzen den...



'HEIDIREN' LAGUNENDAKO SARIA

Bedelkar herriko dendarien elkarteak Labegaraietako koadrila honi eman dio Aratusteetako saria. Afari-merienda egiteko 200 euroko saria jasoko dute *Heidik, Pedrok, Aitonak, Rotenmeier andereak, Klarak, Lanbro txakurrak eta arditxoek...* Ondo baino hobeto mozarrotu ziren Aratusteetan. Zorionak, eta on egin!



ARANZADIKOAK PANTICOSAN

Aranzadi Ikastolako DBHko 2. mailako ikasleek Panticosara ikas bidaiia egin berri dute. Otsailaren 16tik 20ra bitartean egon dira. Guztira, 60 lagun joan ziren, eta primeran ibili dira elurretan. Handik bueltan, elurra izan dute Bergaran bertan. Gorlako pistetara joango ziren praktikatzera?

**OILAGORRA
TABERNA**

Barrenkalea 21 BERGARA

**BEHEKO
TABERNA**

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74



943 76 20 61
BERGARA

HALCOURIER
MEZULARITZA-ZERBITZUA

Partikularrendako eta industriendako
eguneroko zerbitzua

Juan XXIII Plaza
Tel.: 943 76 98 51 Faxes: 943 76 98 52

MINGAINARITIRAKA



Carmen Garate

GARATE POLTSA DENDAKOA

Bilboko alde zaharrekoa da Carmen, baina 45 urte daramatza Bergaran bizi izaten. Mutil-lagun bergararra zuen, eta horregatik etorri zen hona bizi izatera. Erretiratuta dago, baina, noizean behin, gustatzen zaio dendatik bueltatzea egitea.

Noiz zabaldu zenuen denda?

Bergarara bizi izatera etorri nintzenean; ni Bilboko naiz, alde zaharrekoa, eta gurasoek oinetako denda bat zeukaten hantxe; gurasoengandik ikasi nuen lanbidea.

Gaur egun, poltsak saltzen dituzue, batez ere; hasieran, baina, beste era bateko denda jarri zenuten, ezta?

Bai; bakailaoa eta ardoak saltzen genituen hasieran; gero, oinetako denda jarri genuen, gurasoek Bilbon zuten dendaren antzerakoa.

Ze eratako poltsak gustatzen zaizkizu?

Niretako, sinpleak, politak eta praktikokoak.

Zenbat poltsa dauzkazu?

Ez ezazu pentsatu asko dauzkadanik: hiru bat edukiko ditut.

Poltsez gain, ze beste saltzen duzue?

Aterkiak, gerrikoak, zumezko altzari txikiak, bisuteria, lepoko zapiak, josteko kaxatxoak, maletak...

Maletak ere bai, hortaz. Maleta prestatu eta nora joango zinateke gustura?

Hondartza ederrak dituen toki lasai batera, erlaxatzera eta eguzkia hartzera; bizi izatera ere gustura joango nintzateke horrelako toki batera.

Errioxa aldera joaten ei zara sarritan.

Bai, San Asension etxebizitza daukat, eta askotan joaten naiz. Han ez dago hondartzarik, baina lasaitasuna eta mahastiak bai; asko gustatzen zait mahastietan paseatzea.

Mendia ere asko gustatzen zaizu, ezta?

Bai; Gorla aldea, Aizkorri, Urbia... asko gustatzen zaizkit. Erretiratuta zaude, baina askotan etortzen zara dendara. Bai, bueltatzea ematea gustatzen zait, eta, ahal bada, pixka bat lagundu.

Zein da adin horretan hain ondo egoteko sekretua?

Ez dakit; lanarekiko maitasuna izan daiteke; lan asko egindakoa naiz. Jatekoa ere zaintzen dut.

Zer eskatzen diozu bizitzari?

Osasunez eta bakean bizi izatea, lasai-lasai.

AINTZANE IRIZAR

BERGARARRAKMUNDUAN

JAIONE AGIRRE

30 URTE / HISTORIA IRAKASLEA / GASTEIZEN BIZI DA

“Gasteiz hiri txiki bat edo herri handi bat da; herri baten eta hiri baten abantailak dauzka”

AINTZANE IRIZAR

Hemezortzi urte zituela joan zen Gasteizera, Geografia eta Historiako ikasketak egitera, eta ordutik hona han bizi da Jaione. Ikasketak bukatu zituen, eta gaur egun Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle da; Erdi Aroko Historiako eskolak, hain zuzen, ematen ditu Gasteizen, EHUren Historia Fakultatean.

Behin unibertsitateko ikasketak bukatuta, ikasten jarraitu zuen Jaione, eta doktoretza tesia egiten hasi zen; horixe izan zen Gasteizen bizi izaten jarraitzeko arrazoietako bat; baina beste arrazoi batzuk ere egon ziren, Jaione berak azaltzen digunez: “Batetik tesia egiten hasi nintzelako geratu nintzen Gasteizen bizi izaten, baina baita Gasteiz oso hiri atsegina egiten zaidalako ere; gainera, dagoeneko hementxe egin dut nire bizimodua”.

Esan bezala, oso atsegin du Gasteiz Jaione, eta gustura bizi

“Ni bergararra sentitzen naiz, eta asko maite dut, gainera, nire herria”

da hantxe; horrelaxe deskribatu digu hiri: “Gasteiz hiri txiki bat edo herri txiki bat da; horrela, herri baten eta hiri baten abantailak dauzka. Bergararekin alderatuz, bizimodua aldatzen da pixka bat, baina ez gehiegi”. Eta horixe da Gasteizen gehien gustatzen zaiona: hiri handiegia izan barik, hiri baten abantailak dauz-

kala. “Oso hiri atsegina da, garbia eta irekia, baina hiri bat da”, azaldu digu Jaione.

Esan bezala, Historia Fakultatean Erdi Aroko Historiako irakasle da Jaione, eta gaur egun doktoretza tesia egiten dihardu, Durangaldeko gizartearen gainean. “Dokumentu eta paper artean pasatzen ditut orduak, historiagile gehienek bezala”. Artxiboko lanak bukatu ditu, eta orain, etxean pasatzen du ordu mordoa, lanean.

“Historiagileen lana ez da sekula amaitzen; badirudi oso bizitza bukolikoa eta ideala daukagula, baina, egia esan, beti daukagu lan mordoa esku artean”, adierazi digu Jaione. Gauzak horrela, ez du aisialdirako denbora luzerik, eta Bergarako lagun askorekin zeukan harremana ere galdu egin ei du urteekin.

Dena dela, familia bisitatzerara sarri etortzen da Jaione Bergarara, eta zera gaineratu digu: “Gasteizen bizi izanda ere, ni bergararra naiz, eta asko maite dut, gainera, Bergara”.



OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

DUATLOIA

Antxintxika Triatloi Taldeko kideek hasi dute denboraldia, duatloi probekin

Bergaran bizi den Steven Patrick Mc Gregor-ek, Eskoziako iazko duatloi txapel-dunak, Antxintxika taldean jardungo du aurten

IRATI AGIRREAZALDEGI

Duatloi denboraldia hasi berri da eta Debagoieneko Antxintxika Triatloi Taldekoek ere ekin diote lanari. Hainbat kidek Basauriko lehenengo proban hartu zuten parte, eta asteburu honetan jokatuko denerako ere gertu dira kirolariak.

Antxintxika Triatloi Taldeak 38 kide ditu aurtengo denboraldian, eta horietako batzuek hasi dute denboraldia. Taldekide gehienak senior mailako gizonezkoak dira: 28, hain zuzen ere. 23 urtez azpiko gizonezkoak lau dira eta beste horrenbeste beterranoak. Emakumeak, berriz, bi baino ez, horietako bat Bergarakoa, Birjina Rubio. Gai-ontzeko taldekide bergararrak honako hauek dira: Ritxar De Goñi, Aritz Kortabarria, Joseba Zuzaeta, Aitor Sotil eta Steven Patrick Mc Gregor, Bergaran bizi den eskoziarra.

ESKOZIAR BAT TALDEAN

Aurten taldean bada berrikuntzarik. Taldekideak gutxiago diren arren (iaz 44 ziren), ez dira nolana hikoak. Izan ere, Antxintxikako Zuhaitz Ezpeleta arrasatearra Euskadiko duatloi txapelduna izan zen iaz. Bestalde, Steven Patrick Mc Gregor eskoziarra



Denboraldi honetarako arropa berria izango dute Antxintxikakoek, Biciprecision Igartua etxeak babestuta.

ARTXIBOA

Bergarara etorri da bizi izatera, eta Antxintxika taldean eman du izena. Hura da, hain zuzen ere, Eskoziako iazko duatloi txapelduna.

Taldearen maila, ordea, ez du horrek bakarrik erakusten. Iaz Antxintxika Euskadiko duatloi txapelduna izan zen taldeka eta baita triatloikoa ere Zarautzen.

Aurten taldean 38 kirolarik jardungo dute, eta horietatik sei Bergarakoak izango dira

EMAITZA ONAK LORTZEA HELBURU

Duatloiko probak abian dira jada. Basaurikoa jokatu zen eta Gernikakoa eguraldia zela eta bertan behera geratu zen. Antxintxika taldekoen asmoa Euskal Herriko duatloi eta triatloi proba gehienetan parte hartzea da. Bestalde, taldekide batzuk atzerrira ere joango dira iron-man lasterketa

gogorrek egitera.

Proba horietan parte hartu ahalik eta emaitza onenak lortzea da Antxintxikakoen asmoa eta posible den neurrian baita iazko markak hobetzea ere.

TRIALTOIARI BULTZARA EMAN

Taldearen filosofiaren baitan triatloiari eta duatloiari bultzada ematea dago. Horretarako jendea animatu nahi dute kirol horietan jardutera. Taldekide batek esan digunez, "ez dira jendeak pentsatzen duen bezain kirol gogorak; gainera, luzera ezberdineko triatloiak eta duatloiak daude, eta norberaren mailaren arabera aukera daiteke zein egin".

Triatloiarekiko zaletasuna bultzatzeko beste modu bat umen artean kirol hori sartzea da. Horretarako, hastapeneko triatloia antolatzeke moduak aztertzen dihardute Antxintxikakoek, baina nahiko konplexua da.

Antxintxikaren beste erronketako bat, azken urte hauetan egin duen bezalaxe, Urkulun Debagoieneko Triatloia antolatzeko da. Horretarako dirulaguntza behar dute, ordea. Laguntzaileetako bat Biciprecision Igartua da. Gainera, arroparen diseinua aldatzekotan dira eta aurten lasterketetan etxe horren izena soinean dutela jardungo dute Antxintxikako lasterkariak.

FOTOKIROLA



Gezi Bat-ekoak egoitza berrian

Joan zen egubakoitzean, otsailaren 27an, estreinatu zuten Gezi Bat taldeko arku-lariak Udalak lagatako lokal berria. Erakustaldi bikaina egin zuten Erregetxo plazako egoitzan, eta hemendik aurrera taldeko zazpi kideek entrenamenduak bertan egiteaz gain, ikastaroak emateko asmoa ere badute. Bide batez, lokal horretan gertu ipiniko dituzte arkuak eta baita geziak ere euren erakustaldietan eta txapelketetan parte hartzeko. Izan ere, bergararrak hasiak dira arku tiroketako lehiaketetan. Aterako diete bai probetxurik egoitza berriari. Orain artean nork bere kasa jardun du, eta askotan —baita neguan ere— kanpoan egin behar izan dituzte prestaketak. //A.

Oraindik laguntzaileak behar dira Euskal Herriko Itzulirako

I.A.

Apirilaren 5ean Euskal Herriko Txirrindulari Itzuliko lehen etapa Bergaran izango ditu irteera eta helmuga. Hori dela eta antolatzaileek jakinarazi digute herriko zenbait gunetan ezingo dela autorik laga. Bestalde, proban laguntzeko jende bila dabilta.

Bergarako San Martin plazan hasiko da aurtengo Euskal Herriko Itzuliko lehen etapa. Helmuga Ibargarain izango da eta txirrindulariak etapen zehar behin baino gehiagotan pasatu beharko dute helmuga puntutik, baita herriko kaleetatik ere.

Hori dela eta antolatzaileek herritarrei jakinarazi nahi diete herriko hainbat tokitan aparkatzea galarazi egingo dutela egun horretan. Beraz, garajea dutenei ibilgailuak bertan gordetzeko deia luzatu nahi diete, eta gidariei, berriz, ahal dela egun horre-

tan oinez ibiltzeko. Izan ere, txirrindulariek kaleetatik pasa behar dutenez, kaosa sortuko litzateke bestela.

LAGUNTZAILEAK

Etapako egunean 100 lagun inguru beharko dira bidegurutzeetan egoteko, trafikoa kontrolatzeko, zein txirrindulariekin eta hauen arduradunekin egoteko. Oraingoz 50 lagunek eman dute izena baina norbait prest badago antolatzaileek eskertuko dute bere laguntza. Interesatuak 619 73 95 07 edo 943 76 54 26 telefonoetara deitu beharko dute.

TXIRRINDU ZALEEN IRTEERA DOMENAN

Bestalde, Bergarako Txirrindulari Elkarteak Zikloturistek denboraldia hasiko dute. Lehen irteera Dorletara egitekoak ziren, baina eguraldi txarrarengatik atzeratu egin zuten. Beraz, domeka honetan 09:15ean Autobus geltokitik irten eta Dorletara joango dira lore eskaintza egitera.

ELKARRIZKETA

IKER AZAGIRRE/PILOTARIA

"Euskal Ligan jokatzetik ez nuen espero, eta irabazita pozik nago"

I.A.

Elgetako Ozkarbi pilota elkartean dihardu Iker Azagirre pilotari bergararrak. Euskal Ligako finala irabazi berri du Ikerrek. Finalean lehia gogorra izan zen, eta gazte bergararra nagusitu zen 22-16.

Noiztik diharduzu pilotan?

Umetan hasi nintzen, eta gero, klubean 8 urte nituela. Gure aita gaztetan pilotaria izan zen, eta hark bultzatu ninduen kirol honetara. Lehengusuak ere pilotan egiten zuten, eta harekin ordu asko pasatuko naiz.

Zein klubetan jardun duzu?

Lehenengo urteak Bergaran eman nituen, kadeteen mailara arte. Gero Soralezera joan nintzen, eta han hiru urte egin ondoren Elgetara joan nintzen. Orain, Ozkarbi taldearekin dihardut. Talde bakoitzean gauza onak eta txarrak bizi izan ditut, baina oro har hiruretan egon naiz gustura.

Euskal Ligako txapelketa zara. Pozik emaitzarekin?

Oso. Gainera, ez nuen torneo hau jokatzetik espero. Izan ere, 22 urtez azpikoen Gipuzkoako txapelketarik ez da jokatu eta batzuk aukeratu gintuzten Euskal Ligarako. Liga erara jokatu genuen, eta nire taldean irabazte izan nintzenez, finala jokatu nuen.

Nolakoa izan zen finala?

Nahiko gogorra. Ligan, finala aurkariaren kontra jokatu nuen, eta baita irabazi ere. Baina finalean hari egokitu zitzaion sakea, eta tentsio puntuan nengoenez, galtzen hasi nintzen. 16 tantotan berdindu eta azken alde-dera sake batzuk asmatu eta pare bat tanto polit egin nituen, hor irabazi nuen partidua.

Aurrez ere hainbat txapelketa irabazitakoa zara, ezta?

Gipuzkoako Txapelketa irabazi nuen, baita Berrizko lau terdiko ere. Binaka hainbat torneo irabazi ditut. Ilusio handien Berrizko txapelketa irabazteak egin zidan. Oso gogorra izan zen, oso pilotari onak jokatu baitzuten. Betidanik nengoen txapelketa hori jokatzeko eta paper ona egiteko gogoz, eta irabazi egin nuen, oso gustura geratu nintzen.

Euskal Ligako txapelketa izan ostean, zein da zure hurrengo erronka?

Orain artean bezala, pilotan jokatzetik gustura jarraitzea. Partidu guztiak berdinduz jokatzetik gustura, eta ez daukat inongo aspirazio berezirik. Orain, esaterako, Mungia binakako txapelketa dihardut baina irabazteko inongo asmorik gabe. Hala ere, irabaziz gero ilusioa egingo lidake, noski. Beste hainbat txapelketa-



ARTXIBO

"Orain artean bezala, pilotan jokatzetik gustura jarraitzea da nire asmoa"

tarako ere eman dut izena, baina oraindik ez dira hasi.

Aurrerantzean pilotan jarraitzeko asmorik baduzu?

Ez daukat buruan profesionala izateko asmoa, momentuan momentukoa jokatzeko baizik. Aspertutakoan laga behar bada lagako dut eta bestela denborak esango dit zer egin. Hala ere, uste dut pilotari gehienon ametsa dela noizbait profesionala izateko; beraz, nahiko nuke.

Herrian badago pilotarako zaletasunik?

Ni ibili nintzen garaian baziren pilotariak, eta orain ere uste dut egongo direla. Toki guztietan bezala, batzuek gogoz jardungo dute eta beste batzuk, berriz, denborapasa joango dira. Azkenal-

"Umeei pilota maitatzen erakutsi behar zaie, lagun artean armonian jokatzetik"

dian profesionalen partidu gutxi izaten da, eta daudenetan frontoia ez da betetzen garai batean bezala.

Nola animatuko zenituzke gaztetxoak pilotan jardutera?

Gasteizen umeen talde bat entrenatzen dut, eta beti pentsatu izan dut euren artean armonia egokia lortzea dela garrantzitsua. Pilota gustuko izan dezatela, alegia. Pilota maitatzen ikas dezatela, eta horretan saiatzen naiz. Partiduak jokatu behar direnean jokatu, baina batez ere lagun giro ona sortuz pilotarekin. Hala ere, kontuan hartu behar da pilotan ondo egiteko frontoian ordu asko sartu behar direla, eta gaztetxoek beste gauza asko dituzte buruan pilota baino lehenago.

Aritz Bikuña Espainiako boccia txapelketan Asturiasen

I.A.

Aritz Bikuña Espainiako boccia txapelketan hartuko du parte asteburuan Asturiasen. Euskadiko Selekzioarekin joango da bertara, eta ahalik eta ondoen jarduten saiatuko da, lehen aldia baitu bertan.

Lehen aldiz jardungo du Aritz Bikuña kirolari bergararrak Euskadiko Selekzioarekin Espainiako boccia txapelketan. Asteburuan Asturiasen izango dira probak, eta Euskal Herrietik bederatzi lagun joango dira bertan parte hartzera.

Aritz Bikuña da taldeko debagoiendar bakarra, baina Amagoia Arrieta debarra ere berarekin entrenatzen da, Bergaran, astean bi aldiz. Neska hau, Bikuña ez bezala, beste hainbat aldiz izan da Euskal Selekzioarekin.

Aritz Bikuña, lehen aldia duen arren, txapelketa aurretik ez da batere urduri egon: "Ahalik eta ondoen jarduten saiatuko naiz Asturiasen, eta irabaziz gero are eta hobeto. Ez naiz sekula Euskadiko Selekzioarekin izan boccia txapelketan, eta ez dakit aurkariak nolako maila duten. Hala ere, lasai nago, urduri daudenak etxeokoa dira", azaldu digu Bikuña.

KONTZENTRAZIOA

Euskadiko Selekzioeko kideak eguaztenean elkartu ziren Altzan, eta kontzentrazioa egin ostean, gaur, egubakoitza, abiatu dira Asturiasera. Txapelketa, berriz, zapatuan eta domekan jokatu dute.

Bakarka zein taldeka, selekzioarekin jokatu beharko du Aritz Bikuña, eta bere taldea ahalik eta leku onenean lagatzen saiatuko da, baita dominaren bat eskuratzen ere.

Boccia jokoa bola zurira gerturatu eta honi jotzen dionak irabazten du, eta horretarako bola gorriak eta urdinak erabiltzen dituzte partaideek.

BOCCIA LAGATA

Aritz Bikuña orain dela hamar urte inguru hasi zen kirol horretan, eta albo batera lagata ere izan du. Hala ere, berriz heldu dio eta txapelketa honetarako gogor jardun du entrenatzen. Makalaldi txiki bat ere izan du orain dela gutxi, baina gaixoari aurre egin eta astebururako gertu izango da.

Bocciaz gain, beste kirol batzuk ere egiten ditu Bikuña. Gorpildun aulkarekin eslamon probak egin izan ditu eta igeriketan eta atletismoan ere jarduten du.



OIHANA ELORZA

Bakarka zein taldeka jardungo du Bikuña Euskadiko Selekzioarekin.

LABEGARAIETAKO FUTBITO TXAPELKETA

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

10:30: Pirulotarrak-Mongatxurra. Artusamak
11:30: T.Musakola-Artusamak. Mongatxurra
19:00: Cosa Nostra-De Resaka. Argandolas
20:00: D. Pafarru-Argandolas. Cosa Nostra

10:30: Irubide-Fit Automocion. Belengua
11:30: Fit Auto.-Canalejas. Pagomendi
12:30: Egurre-Argandolas. Fit Automocion
17:00: Argandolas-S.D.T.N.T. Bedarreta
18:00: Bedarreta-T.M.T. FAC
19:00: A ze flaxa-FAC. Agirrebeña
20:00: Agirrebeña-Teatek. A ze flaxa
21:00: Torrekua-Dedo Pafarru. Argandolas

DOMEKAN, BARRUAN

09:30: Etengabe-Belengua. Irubide

ELKARRIZKETA

MAITE OTAOLA/DANTZARIA

“Espresio forma diferenteak fusionatuz publiko zabalagoarengana heldu nahi dugu”

EDU MENDIBIL

Maite Otaola gaur egungo dantzako ikastaroa ematen hasi da aste honetan Bergaran. Era berean, data zehazteke dagoen arren, Desiderata taldearekin... *inor begira ez balego bezala* ikuskizuna eskainiko du aurki.

Zelako lana da... *inor begira ez balego bezala*?

Dantza, antzerkia eta argazkilaritza uztartzen dituen ikuskizuna da. Lucia Etxebarriaren *De todo lo visible y lo invisible* eleberriko pasarte baten oinarrituta dago; kanpora begira ematen dugun imajinaren eta gure barne munduaren artean gertatzen den borroka islatu nahi izan dugu. Askotan geure buruari aske izateko mugak jartzen dizkiogu, alegia, gure etsai bihurtzen gara. Hori azaldu nahi genuen. Lehenbizi gaia aukeratu genuen eta ondoren Oihana Eleizalde taldeko beste dantzariak kasualitatez irakurri zuen Etxebarriaren liburua. Hortik abiatuta, urtebete eman genuen Oihanak eta biok ikuskizuna lantzen, eta ia estreinatuta genuen, Lasarten. Gurekin batera, Ainhoa Martin eta Marta Brizuela aktoreek hartzen dute

parte. Argazkiak, berriz, Cristina Sanchezenak dira.

Gaur egungo dantza ikuskizunak ez dira oso ohikoak gurean.

Lan ikaragarria eskatzen dute, eta gero saltzea, plazaratzea ez da batere erraza. Oraindik ere Euskal Herrian tradizioak agintzen du, eta gauza berriei atea zabaltzea kostatu egiten zaigu. Horrelako ikuskizun baten parte hartzeko hiriburuetara joan beharra duzu derrigor. Aurretik, dantza integratzen zuten hainbat ikuskizunetan parte hartu genuen, eta dantzak berebiziko garrantzia izango zuen ikuskizun bat landu nahi genuen.

Zein harrera izan duzue?

Jendeak esan digunaren arabera, ikusleengana heltzea lortu dugu. Ez da gutxi. Espresio forma diferenteak fusionatuz publiko zabalagoarengana heltzea da gure helburuetako bat.

“Euskal Herrian tradizioak agintzen du, eta kostatzen zaigu gauza berriei atea zabaltzea”

Zelan hasi zinen gaur egungo dantza ikasten?

Txikitan gimnasia erritmiko taldean ibili nintzen eta gaur egungo dantza ere erakusten ziguten. Gustatu zitzaidan eta hori ikastea erabaki nuen. Lau urte eman nituen Bartzelonan, Institut del Teatre delakoan. Baina zaila dago dantzatik bizi ahal izatea. Artelekun, Martutenen, Diputazioak utzitako lokalean egiten ditugu entseguak. Lan berriarekin Euskal Herrikan kanpora irteko asmoa ere badugu.

Eta zer erakutsiko duzue aste honetan hasitako ikastaroan?

Noizean behin gaur egungo dantzako ikastaroak ematen ditut. Iaz ere egin genuen ikastaroa Bergaran. Gaur egungo dantza zer den azaltzea ez da horren erraza. Dantza klasikoak garatuz joan da, eta, horren ondorioz, mugimendu askeagoak eskatzen dituzten hainbat teknika sortu dira: *Graham, Limon, Release...* Horiek egiteko ez dago zertan sekulako elastikotasuna edo ahalmenak izan. Ez da horren elitista. Gure gorputzarekin kontzienteago izateko eta gure buruarekin hobeto sentiarazteko ariketak egiten ditugu, denetarikoa musikarekin lagunduta. Oso ariketa kompletoa da, espresibotasuna lantzeko primeran dator.

**Aratusteetako argazkiak Nahikari tabernan**

Azken urteotan moduan, Aratusteetan argazkiak atera zituzten Masterrekako Nahikari tabernan. Mozorrotuta joan ziren taldeen argazkien albuma hurrengo bi asteotan tabernan bertan egongo da ikusgai. Nahi izanez gero, argazkien kopiak eskura ditzakete nahi dutenek. Informazio zabalagoa Nahikari tabernaren webgunean duzue: <http://www.nahikari.com>.

KULTURAPILULAK

‘Kamchatka’ filma eta bi kontzertu asteburuan Bergarako gaztetxean

Bergarako gaztetxeak antolatutako zinema emanaldien barruan, domekan, hilaren 7an, *Kamchatka* filma eskainiko dute, 19:00etan.

Bestalde, gaur, egubakoitza, Extorsion taldeak joko du gaztetxean, 22:30ean, eta bihar, ordu berean, Wild Savages, Rojo Omega eta Vicer Vaniti taldeek kontzertua egingo dute.

‘Cien años de perdon’ umorezko antzezlanazapatuan, gauerdian, Nahikari tabernan

Cien años de perdon umorezko lana antzeztuko dute bihar, zapatua, Bittor Amilibia eta Alvaro Oliver aktoreek Nahikari tabernan, gauerdian.

Cien años de perdon lana Patxi Bilbaok sortutakoa da eta Javier Hernandez da antzezlanean zuzendaria.

Punk kontzertua zapatuan Jam aretoan eta UFO eta Uli Jon Roth domekan

Bihar, zapatua, Parabellum, Commando 9 mm, Segismundo Toxicomano, Boikot, MCD eta 37 Hostias taldeek kontzertua emango dute Jam aretoan, 21:00etatik aurrera. Domekan, berriz, UFO eta Uli Jon Roth taldeak izango dira Amillagako aretoan, 20:00etan.



Gehiago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 11. alia

IEPA LAGUNOK!

Oraingo honetan ipuin polit bat irakurriko dogu. Ondoren, ipuiñarekin lotuta, hizki saldan hainbat berba topau biharko dittugu. Gozatu ipuin zoragarri hau irakurrixaz!! Ah, ahaztu baiño lehen, gogoratu hurrengo astian lehiaketia egongo dala.



URREZKO ARAUAK

Zer egin neike ondo pasatzeko?
A ze sustoa emon doskuzun!



Zer egin leikedot ondo pasatzeko?
Ke susto emon doskuzun!



IPUIÑA "Artzain gezurtixa"

Mendiko herri txiki batian artzain gazte bat bizi zan bere artaldiarekin. –la goazen larrera! esaten zotsen, txakurra inguruan saltoka zebilela. Artzaiña, txakurra eta ardixak goizian goiz irtetzen ziren, herrikuak lotan zeren bittartian. Zelaira ailegautakuan, artzaiña txorixak entzuten egoten zan. Egun baten, aspertu egitten zala konturatuta, pentsau zeban: –Aspertuta nago beti gauza bera egitten. Zer egin neike dibertitzeko? Bat-batian ideia bat bururatu jakon: –Badakit! – altzau eta diadarka hasi zan: –Otsua! Lagundu, otsua dator!

Herritarrak artzaiñaren diadarrak entzundakuan, makillia eta aizkorak hartu eta larrerako bidia hartu zeben. Baiña larrera ailegau bezain laster artzaiña barrez ikusi zeben. –Adarra jo dotsuet! Txantxa zan! Herritarrak elkarri begiratu eta haserre esan zotsen: –Gezurti halakua! A ze sustua emon doskuzun! Beste egun baten be gauza bera egin zeban artzain gaztiak. –Lagundu! Otsua dator!



Eta oinguan be herritarrak alkartu eta artzain gaztiari laguntzeko asmoan mendirako bidia hartu zeben. Baiña oinguan be gizurra. Eta hirugarren aldixa be izan zan, baiña orduan ez zan gizurra. Otsua benetan ailegau zan. Artzaiña zihero billurtuta diadarka hasi zan. –Otsua datorrela! Ardi danak jango dittu! Lagundu! Baiña egun hartan iñork ez zotsan sinistu eta otsuak artzain gaztiaren ardi danak jan zittuan.



HIZKI SALDIA

Topau eitzu ipuiñian azaldu diren bost berba hauek:

- ARTZAIÑA
- OTSUA
- ARDIXAK
- ZELAIXA
- GIZURRA

A	R	T	Z	A	I	Ñ	A	T	U
D	F	G	K	L	O	E	R	B	P
B	Z	I	D	D	M	K	L	N	A
N	J	Z	L	M	G	O	H	J	R
L	H	U	H	K	T	O	P	T	R
A	G	R	T	S	P	L	G	R	U
R	E	R	U	J	O	H	T	E	Z
R	D	A	R	D	I	X	A	K	I
I	S	I	T	E	A	T	J	I	G
A	X	I	A	L	E	Z	J	J	K

GUREGAIK/ IKAS BIDAIA

Ikas bidaiak: lagun arteko oporrak ikasketen aitzakian

IRATI AGIRREAZALDEGI

Ikasketen lasterketan etapa bakoitza amaitzeko modurik arruntena ikas bidaia izan ohi da. Ikasleak eurak arduratzen dira antolaketaz. Dirua lortzeko moduak asko dira, baita helmugak ere.

Ikasketa ziklo bati amaiera emateko modua da ikas bidaia. Hainbat urtez elkarrekin jardundako neska-mutilek ikasketak eta, kasu batzuetan, ikaskideak agurtzeko era, hain zuzen ere.

Ikas bidaiakoak ondo pasatzeko egunak dira, batzuen iritziz; ikasketen osagarri direla esaten duenik ere bada.

Ikasleek lagunartean oporraldia ondo pasatzea eta ikas-txetik alde egitea dute helburu. Inguruko txokoak ezagutu, bai-

na neurrian. Egunez eguzki azpian eta gauz diskoteketako argipean. Irakasleek ikas bidaiei funtzio pedagogikoa eman nahi izaten diete: kultura, arkitektura, ohiturak... ezagutu.

BARTZELONA ETA FRANTZIA

Bergarako ikasleek ere egin ohi dute ikas bidaia. Mariaren Lagundikoak DBHko 4. mailan joaten dira bidaiari, maiatzean edo ekainean. Orain artean Bartzelona aldera joan izan dira, eta aurten batzuek eskiatzera joateko nahia azaldu badute ere, garai horretan elurrik ez dagoenez eguzkiarekin konformatu beharko dute. Ikasleek bidaia ordaintzeko astero diru kopuru jakin bat ipintzeaz gain, zozketa txartelak saldu ohi dituzte. Gabonetan kantuan eta eskean irteten dira eta kabalgatan ere hartzen dute parte.

Aranzadikoek etapa bakoitzaren amaieran izaten dute bidaia. Batxilergoko ikasleek bi bidaia egiteko aukera dute. San Joseko zubian, frantses eskolak aitzakiatzat hartuta, lehenengo eta bigarren mailako 40 ikasle Frantziara joango dira. Bigarren mailako ikasleak, berriz, ekainean Bartzelonara egingo dute lau eguneko bidaia. Dirua lortzeko garai batean zozketak egin ohi zituzten, baina orain, astean bi euro jarrita nahikoa dute.

Ipintzan, DBHko 4. mailakoak Parisera eta Amsterdamera joango dira martxo bukaeran. Hara joateko dirua beharrezkoa da, eta horretarako, polboroiak, bonboiak, loteria eta kamisetak saldu dituzte, eta kabalgatan eta kantuan atera ziren Gabonetan. Batxilergokoek euren kabuz antolatzen dute ikas bidaia.



Ongi pasatzera joaten dira ikasleak ikasketa amaierako bidaiari.

E, TXO!

LOTSABARIK/ Nerea Garmendia

BI KONTZERTU ASTEBURU HONETAN GAZTETXEAN

Bergarako gaztetzean bi kontzertu daude iragarrita astebururako. Gaur, egubakoitza, Extorsion taldeak jardungo du eta beste talde bat izango du lagun. 22:30ean hasiko da. Zapatuan, ordu berean, Wild Savages, Rojo Omega eta Vicer Vaniti talde madrildarrek joko dute.

EHU-KO TITULUDUNEN %12 LANGABEZIAN

Duela hiru urte Euskal Herriko Unibertsitatean tituluren bat lortu duten pertsonen %12 inguru langabezian daude eta %5,6k ikasten jarraitzen dute. Lanean diharduten horien heren batek dagokiona baino maila baxuagoko lanpostu baten edo bekadun gisa dihardute.

“Gezurrak entzuteak amorratzen nau”

IRATI AGIRREAZALDEGI

Berez alai dela esan digun arren, lotsati xamar azaldu da Nerea elkarrizketara. Hori bai, denbora guztian irribarrea izan du musuan, eta barre txikien artean erantzun die guk egindako galderari.

- Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke? Gazteendako ekintza gehiago antolatuko nituzke.
- Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu? Dena daukat irudiz beteta. Musika taldeen pegatinak daukat batez ere, eta baita esanahi politikoa dutenak ere.

- Telebistako saiorik gorrotagarriena? Eta gustukoena? Ez dut telebista askorik ikusten, baina prentsa arrosa lantzen duten saioak gorroto ditut. Gustuko, berriz, ETB2ko *Vaya Semanita* programa.
- Pertsonaia higuinagarriena? Eta gustukoena? Bush da txarrena, ezin dut jasan. Gehien gustatzen zaidan pertsonaia, aldiz, Chino Moreno abeslaria da.
- Zerk amorratzen zaitu? Besteen ahotik gezurrak entzuteak.
- Zer estimatzen duzu besteengan? Pertsona jatorrak izatea baloratzen dut.

- Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan? Pertsonari. Lagunei eta etxekoei batik bat.
- Zure bertute bat? Eta akats bat? Alaia naizela diote, baina era berean baita burugorria ere.
- Zelan ligatzen duzue gazteok? Mozkortu eta lotsa barik ibilita.
- Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke? Jatorra eta alaia.
- Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat? Chicagora, lagun batzuekin.
- Etorkizunerako amets bat? Musika talde batean abestea edo instrumenturen bat jotzea.



ADINA: 16 urte • IKASKETAK: DBHko 4. maila • ZALETASUNAK: Musika kontzertuetara joatea • LIBURU BAT: Stephen King-en 'It' • FILM BAT: 'Matrix Reloaded' • MUSIKA TALDEA: Coilbox • KIROL TALDEA: Reala

TIRABIRAKA/ izenaxxxxxxxxxxxx



BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Zein da Olako baserri honen izena?

BERGARAROSPETSUAK


Azkarate-Askasua Eustakio

DONATO GALLASTEGI ('Bergarako kronikak')

Bergaran jaio zen 1887ko irailaren 19an, eta 1911n abade egin zen. Organo jotzaile eta konpositore handia izan zen Eustakio. Sekula ez zuen Bergaratik kanpora joateko asmorik izan, eta hementxe bizi izan zen, 1965ean hil zen arte. Urteen joanean, pertsona maitatua izan zen herrian. Koru-kanta erlijioso eta lan profano garrantzitsuak sortu zituen. San Pedroko organoaren sekretuak inork baino hobeto zekizkien, eta artistatzat zeukaten guztiak. On Eustakiok Stoltz organoa jotzean ateratzen zuen soinuaren zolitasuna harrigarria zen; haren oroitzapen hutsa benetako gozamen da.

(...) Eustakiok izugarri ondo inprobisatzen zuen, melodia eta gai euskaldunen gainean oro har. Mariaren Alaben koru bikaina sortu zuen, eta Sortzez Garbiaren Bedera-tziurren gogoangarrietan kantatzen zuten. Abesbatza hari esker, izen handia egin zuen Bergarak ospakizun erlijiosoetan. Bergarako Orfeoia ere On Eustakioren koruaz baliatzen zen, eta Roman Oiartzabalek handik hartzen zituen Orfeoian behar zituen ahots zuriak.


San Pedroko organoaren sekretuak inork baino hobeto zekizkien On Eustakiok



ARTXIBOA

GALDEDEBALDE

- | | | |
|---|---|--|
| <p>1.
Zein da Ernesto Ezpeleta eibartar aizkolariaren ezizena?</p> <p>A/ Amaña.
B/ Bihurri.
C/ Urkizu.</p> | <p>2.
Zein taldetan ari da Iker Azagirre pilotaria?</p> <p>A/ Olalde.
B/ Ozkarbi.
C/ Jai-Alai.</p> | <p>3.
Maite Otaola dantzaria talde baten dabil. Zein?</p> <p>A/ Desiderata.
B/ Haizea.
C/ Ados.</p> |
|---|---|--|



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

DOLORES ARANZABALendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Dolores!
Galderen erantzunak: Bonofotoa: Zubieta kalean / Galde debalde: 1-C, 2-A, 3-C.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Molen Beer

Garagardoa, 33 cl-ko lata.


0,25 €

42 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



GOIERRI
AUTO GIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

KONDE
PANADEROKUA




Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA



POL-POL
Taberna

943 76 07 78. Bergara



Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



ELGETA
Ainhoa Azkarraga
Martxoaren 8an, 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Leire.



BERGARA
Julen Rodriguez
Otsailaren 25ean, 7 urte.
Zorionak! Etxekoak eta
anaia Andoniren partez.



BERGARA
Ainara Gomez
Martxoaren 7an, urtebete.
Zorionak! Gurasoak,
aiton-amonak eta izebak.



BERGARA
Juan Dovao
Martxoaren 8an, 43 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Irati Palacios
Martxoaren 3an, 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta bereziki Lorea.



BERGARA
Juli Nuñez
Martxoaren 3an.
Zorionak! Etxekoak eta
bereziki Haizea.



BERGARA
Ana
Martxoaren 3an.
Urte askotarako!
Espoloko lagunak.



BERGARA
Josu Zezeaga
Martxoaren 3an 3urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Aitor Garitano
Martxoaren 8an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak, bereziki Amaia.



BERGARA
Ibane Baseta
Martxoaren 8an 15 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Izar Morillas
Martxoaren 5an 8urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Eukene Azpeitia
Martxoaren 4an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Eneko Anizaga
Martxoaren 3an 12 urte.
Zorionak! Ama, arreba eta
lelehengusina.



BERGARA
Ana Uribe
Martxoaren 8an 48 urte.
Zorionak! Eneko, Arantxa
eta Maider.



BERGARA
Egoitz Andres
Martxoaren 5ean 1 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



BERGARA
Maitane Urkiola
Martxoaren 11n 3 urte.
Zorionak! Etxekoak eta
bereziki Alazne.



BERGARA
Mikel Garcia
Martxoaren 6an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Mertxe.



BERGARA
Juanita Zugasti
Martxoaren 8an 90 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Maddi Alberdi
Martxoaren 8an 7 urte.
Urte askotarako!
Ugarrixako familia.



BERGARA
Bittori Larrañaga
Martxoaren 6an 2 urte.
Urte askotarako!
Ugarrixako familia.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxongua

ALBAITARIAK

- ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman)** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67 / 607 48 71 19
ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) 943 76 43 29 / 609 54 16 13
ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albaitari ofiziala) 943 76 43 29 / 609 54 16 13
IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

- LABORRA Isabel** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

- IRIGOIEN Victor** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

- AGIRRE HORTZ KLINIKA** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23
ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46
ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95
BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 36, behe. 943 76 05 77
GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88
CAVIGLIA Silvana S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54
IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65
SAINZ Ana Herriko plaza 4, ANTZUOLA. 943 78 71 69
TRIPALDI Enrike Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76

DIETISTAK

- ALBERDI Mireia** Olanan etxea, Herriko plaza 3, ANTZUOLA. 943 76 60 45 / 646 43 34 58

ERREHABILITAZIO FISIKOA

- LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

- ARZAK Miren** (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71
BASTERRETXE, Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

HOMEOPATA

- GANUZA Susana** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

MASAILARIAK

- AZPEITIA Irupe** Ibargarai 44, behe. 943 76 73 43
CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78
ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

- BENITO Isabel** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62

MEDIKUNTZA OROKORRA

- OXIRONDO KONTSULTATEGIA** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50

PODOLOGOAK

- IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA** Ikerleku Zeharbidea z/g. 943 76 07 84
AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

- GALLASTEGI Pablo** San Martin Plaza 2, 1-ek. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80
URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13
ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

YOGA

- SAMADHI YOGA** Masterreka 13, behe. 943 76 11 38 / 639 235 753

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004eko martxoaren 5a / 192. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

‘Ugaztun baten antsiak’ antzezlanana etzi, domeka


AINZANE IRIZAR

Teresa Lopez de Munain aktoreak *Ugaztun baten antsiak* antzezlanana eskainiko digu etzi, domeka. Herri lkastetxeko aretoan izango da emanaldia, 19:00etan. Bakarriketa baten bitartez, gaur egun pil-pilean dauden hainbat gai taularatuko ditu.

Telebistan ezagutu genuen gehienok Teresa Lopez de Munain aktorea. Batez ere, *Goenkale* telesailan egin zen ezaguna: *Gina* italiarraren papera egiten zuen hantxe. Hala ere, aspalditik dihardu antzerkiaren eta antzezpenaren esparruan, eta hainbat antzezlanean parte hartutakoa da. Txorropio, Pantxi eta Pantxo *klown* taldeko kide ere bada.

PIL-PILEAN DAUDEN GAIK

Emakume batek bere haurtzararen gainean dauzkan oroitzen, bizipen eta sentimenduen gainean berba egiten du antzezlana horretan. Bakarriketa da, eta Teresa Lopez de Munain aktorea bere amaren, irakasleen, auzokoen eta aitaren paperean sartzen da, besteak beste. Inguruko jende helduaren ikuspuntuak, ohiturak, gaitasunak, pentsatzeko



BLAIKOM

Teresa Lopez de Munain aktorearen bakarriketa da antzezlanana.

erak, eta abar taularatzen ditu, neska txiki baten ikuspuntutik.

Umeen heziketarekin lotutako gaiak ere lantzen ditu, eta horren inguruko eztabaidak jartzen ditu mahai gainean; hala nola, umeari bularra ematearen

garrantzia, umeen ametsak, amaren eta umearen arteko harremana, umeen heziketaren gaineko kontuak... Gogora ezazue hori guztia eta gehiago ikusi ahal izango dugula eskolako aretoan, domekan, 19:00etan.

ANELKAR

Emakumeari buruzko erakusketa Oларanen

AINZANE IRIZAR

Anelkar Antzuolako Elkartasun Taldeak antolatuta, Amnesty International erakundearen argazki erakusketa zabalduko dute oraingo asteburuan, Oларan etxeko aretoan. *Giza eskubideak, emakumeen eskubidea* du izena argazki erakusketa horrek, eta emakumea du oinarri. Datorren asteko asteburuan ere ikusgai egongo da.

Honakoa izango da ordutegia: 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:00etara.

EMAKUMEAK ARGAZKITAN

Guztira, hogeitaz argazki jarriko dituzte ikusgai. Erakusketa horren helburua da emakumeek munduan bizi duten egoera ezagutzera ematea. Besteak beste, honako izenburuak daramatzaten argazkiak egongo dira: *Emakumeak torturatuak, Emakume ekintzaileak* eta *Gehiegikeriak erlijioaren izenean*.

Bestalde, gai horrekin lotutako hitzaldia ere egingo dute; zurrerrik, hilaren 11n, eguena, izango da hitzaldia, baina, baitezkezteke dute oraindik.



Afganistango emakume talde bat, manifestazio baten.

HAUTESKUNDEAK

Aralar-Zutik koalizioa aurkeztu zuten herrian eguazten iluntzean

Eguazten iluntzean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan egin zuen Aralar-Zutik koalizioak aurkezpena. Pilar Etxaniz Kongresurako zerrendako hautagai antzularrak eta Ainhoa Larrañagak egin zuten berba.

EZKERREKO KOALIZIO BERRIA

Koalizioak ezkerrek duen garrantzia nabarmendu zuen Antzuolan. Leloak ere horixe adierazten du “Euskal Herria ezkerretik” erai-

kitzeko nahia. Adierazi zuten, gizarteko ezkerreko eragileen bilgune izateko aurkezten dira hauteskunde hauetara. Ezker berri, ireki, anitz eta eraldatzaile baten ernamuina direla adierazi zuten. Ezker nabarmen zeaz gain, esparru politiko berri bat ireki beharraz jardun zuen Ainhoa Larrañaga Aralar koalizioaren zuzendari-tzako kideak.

Aralar-Zutik koalizioa zergatik osatu zuten ere azaldu zuten:

“Euskal Herri burujabe baten alde apustu egiteko, bere etorkizuna askatasunez eta demokratikoki erabaki dezan”. Pilar Etxaniz Zutik-eko ordezkariak emakumearen eta politikaren gaineko hausnarketa egin zuen, eta adierazi zuen “emakumeek garrantzi handia dutela politikan”. Argi dute Euskal Herriari dagozkion gai askoz egiten dela berba Madrilan, eta han egon behar dela ezkerreko den aukera bat.



Pilar Etxanizek eta Ainhoa Larrañagak parte hartu zuten aurkezpen ekitaldian.

ELKARRIZKETA

INES MENDEZ/ABOKATUA ETA NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN IKASLEA

“Nekazaritza ekologikoa gertutik ezagutzera etorri nintzen Lapatzara”

A.I.

Ez da oso ohikoa abokatu bat baratzean ikustea. Bada, horrelaxe ibili da Ines Mendez. Nekazaritza ekologikoaren gaineko ikastaro bat egin eta Lapatzara etorri zen gehiago ikastera; hantxe egon da aurreko astera arte.

Zelan abokatu donostiar bat Lapatzara baserrian?

Fraisoro nekazaritza eskolan nekazaritza ekologikoaren gaineko ikastaroa egin nuen; bost hilabeteko ikastaroa izan zen, eta hori bukatu nuenean, Diputazioaren beka bat lortu nuen, praktikak egiteko. Horrelaxe, beka hari esker etorri nintzen Lapatzara, eta sei hilabete egin ditut hemen.

Zelan piztu zitzaizun nekazaritza ekologikoarekiko jakinmina?

Orain arte enpresa esparruarekin lotuta egin dut lan, abokatu. Baina nekazaritza ekologikoarekiko interesa nuen, eta arlo horretan lan egin nahi nuen. Horregatik egin nuen Fraisoro ikastaroa. Izan ere, horretan lan egiteko mundu hori hobeto ezagutu nahi nuen, bertatik bertara.

Baratzean lanean ikasi duzu, hortaz, zer den nekazaritza.

Bai; eta horrekin batera, Ekonekazaritzarekin, Euskal Herriko nekazaritza ekologikoaren federazioarekin, proiektu bat egin ere ibili naiz. Nekazaritza ekologikoan badago sistema bat zertifikatzen duena produktu bat ekologikoa dela. Euskal Herrian Eusko Jaurlaritzak egiten du hori, baina kontseilu bat sortu nahi dute zeregin horretarako. Nekazaritza ekologikoaren sektoreak proposamen bat aurkeztu dio Jaurlaritzari, eta horretan lanean ibili naiz.

Ezagutzen zenituen Antzuola eta inguruak?

Bada, ez; gainera, barrualdeko askotan esaten duzue hiri-



A.I.

“Abokatu naiz, eta orain arte enpresa esparruan egin dut lan; aldatu egin nahi nuen”

burukook ez ditugula zuen herriak ezagutzen, eta nire kasuan, behintzat, halaxe zen; horrela, aukera izan dut Antzuola eta inguruko herriak ezagutzeko. Egia esan, ez naiz Antzuolako bizimoduan askorik murgildu, baina gustatu zait.

“Antzuola eta inguruak ezagutzeko aukera izan dut; barrualdeko herriak ez nituen ezagutzen”

Hemen sei hilabete pasatuta, herriarekin harremanetan jarraituko duzu, ezta?

Bai; gainera, Lapatzan egon naiz bizi izaten, eta harreman estua egin dut familia osoarekin. Gaur bertan ere hantxe egon naiz bazkaltzen.

LABUR

Goi-tentsioko kableak jausi zirelako egon ziren antzuolar gehienak argindar barik

Zapatuan, 20:00ak aldera geratu zen Antzuola ia guztia argindar barik, eta halaxe egon ziren domeka gauerdia arte. Argindar mozketaren arrazoia izan zen goi-tentsioko kable batzuk jausi egin zirela, elurraren pisuagatik. Kable horiek zeuden tokira iristeko hainbat arazo izan ei zituzten Iberdrolako langileek, eta horregatik atzeratu zen konponketa. Astelehen goizean, berriro ere geratu zen herria argindar barik; kasu horretan, hiru orduko etenaldia izan zen. Bestalde, aipatzekoa da martitzen goizean izotzak hainbat arazo eragin zituela herrian.

Erretiratuak Peñiscolara joango dira, Arrasateko Abaroa elkartekoekin batera

Arrasateko Abaroa elkarteak elkarrekin bidaia bat egitera gonbidatu ditu Antzuolako erretiratuak. Peñiscolara egingo dute bidaia, maiatzaren 6tik 15era. Bihar, zapatua, izango duzue izena emateko aukera erretiratuen elkartearen. 270 euro ordaindu beharko dira.

Martxoaren 10ean, berriz, Legazpira irteera egingo dute; Mirandaola, Artzaintzaren Ekomuseoa eta Ogiaren Txokoa bisitatuko dituzte. Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, 18:30etik 19:30era eman dezakezue izena. Domekan, berriz, 17:00etatik 18:00etara.

Pello Zabalaren hitzaldia martxoaren 9ra, martitzena, atzeratu behar izan dute

Aurreko asteko eguenean, hilak 26, egitekoa zuen berbaldia Pello Zabalak Antzuolan, erretiratuen elkarteak antolatuta; eguraldiak sortutako arazoengatik, baina, bertan behera laga behar izan zuten.

Datorren martitzenean, martxoak 9, izango da atzeratutako hitzaldia, Olanan etxean, 18:00etan. *Klimatologia eta tenporak* izenburua darama saioak, eta nahi izanez gero, Pellori galderak egiteko eta berarekin solasaldia egiteko aukera izango da.

Independentzia Eguna martxoaren 27rako antolatu dute Gazte Asanbladako kideek

Jarri dute aurtengo Independentzia Egunerako eguna: martxoaren 27an, zapatua, ospatuko dute egun hori. Dagoeneko salgai jarri dituzte bazkarirako txartelak, Mox eta Larrea tabernetan, 15 euroren truke. Bestalde, martxoaren 27rako aurrez ikusita zuten sagardotegirako irteera, bertan behera laga dute; izan ere, jende gutxi eman du izena. Berriro egin dute deialdia, apirilaren 3rako. Etzi, domeka, izango da izena emateko azkeneko eguna.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Martxoak 6

16:00: Antzuola-Intxaurdi (Neskak)

Oharra: Kadete mailako futbol taldeak

oraingo asteburuan, Estalan,

Ikasberriren aurka jokatu beharreko

partidua bertan behera laga dute.

EMAITZAK

FUTBOLA

Elurteagatik, bertan behera geratu ziren aurreko asteburuan herriko taldeek jokatu beharreko partiduko guztiak.

PILOTA

Udaberri Saria

Olalde-Altzatarrak (paletaz) . . . 26-35

Elgeta-Olalde (eskuz kadet.) . . . 5-22

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga
Zoruen kutxilatatu
eta
bernizatzea
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta
gozotegia
Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga
Apainketarako eta
industriarako pinturak
Paper margoak
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004eko martxoaren 5a / 176. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95



Martxoaren 20an, goizean trikitilariak izango dira eta bazkariaren ondoren bertsolariak eta baita ezustekoa ere.

ARTXIBOA

Gaztetxearen urteurren ospakizunak abian dira

IRATI AGIRREAZALDEGI

Datorren martxoaren 20an, gaztetxeak zortzigarren urteurrena ospatuko du. Hori dela eta, Elgetako Gazte Asanbladako kideek hainbat ekitaldi antolatu dituzte hilabete honetarako. Besteak beste, kontzertuak eta hitzaldiak izango dira.

Zortzi urte beteko dira martxoaren 20an Elgetako gaztetxeak atak ireki zituela, eta urteurrena aintzat hartuta, ekitaldiak antolatu dituzte martxorako.

Bihar, martxoak 6, kontzertua izango da. 22:30ean hasita, Zea Mays bilbotarrek eta Iruñeko Leihotikan taldeak jardungo dute gaztetxean.

Martxoaren 8an, datorren astelehenean, Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna dela eta, kontzentrazioa deitu du Gazte Asanbladak. Bilkura 20:00etan izango da, plazan, Emakumea bizirik lelopean.

Egun bera aitzakiatzat hartuta, martxoaren 12an, Lanbroa feminista taldeko kide batek hitzaldia egingo du gaztetxean,

20:00etan, eta horren ondoren, afari-merienda egingo dute.

UMEEN EGUNA

Gaztetxean herriko gazteak elkartzen badira ere, umeei ere egin diete tokia egitarauan. Martxoaren 13an, goizean plazan bat egin eta Asentziara joango dira umek. Gero, bazkaldu eta eguna jolasen amaituko dute.

Elgetako gaztetxeak badu harremanik inguruko beste hainbat gaztetxekin. Hauen egoera zein den eta lana nola egiten duten jakiteko, mahaingurua antolatu dute martxoaren 18rako.

Egitaraua zabala da oso, eta, kontzertu eta hitzaldiez gain, antzerkirik ere ez da falta izango. 19an, Tearto taldeak *El feeling es asi* antzezlanaren egingo du.

Kontzertuak, hitzaldiak eta bazkaria antolatu dituzte, besteak beste, martxorako

Martxoaren 20an, urteurren egunean, goiza trikiti doinuz hasiko dute. Herri bazkaria izango da ondoren, eta bazkalostean, trikiti doinuez gain, bertsolariak izango dira, eta ezustekoren bat ere bai. Eguna biribiltzeko kontzertua egongo da, eta, besteak beste, Elorrioko Trapatoni Circus Bandek jardungo du.

Bestalde, martxoaren 27rako ere musika emanaldia dago iragarrita. Matxura eta Morau taldeek eskainitako kontzertuak izango dira.

OSTIRALERO BILERA

Gazte Asanbladan 20 lagun inguru ibiltzen dira, eta ostiralero elkartzen dira gaztetxean, 20:00etan. Gainera, kideek esan digutenez, atak zabalik daude bileran parte hartzeko.

Gaztetxeak ahalik eta ekitaldi gehien antolatzen saiatzen dira urtean zehar. "Batez ere kontzertuak egin ditugu, baina pelikula emanaldiak, hitzaldiak, antzerkiak... ere izan dira gaztetxean. Aurrerantzean ere askotariko eremuak jorrazteko asmoa dugu", esan digu Gazte Asanbladako kide batek.

ITURRIAK

Seinalea, urik edan ezin daitekeen iturrietan

I.A.

Udalak Eusko Jaurlaritzako Osasun Saitetik gutun bat jaso du, ur sareari lotu barik dauden iturrien gainean. Gutun horren arabera, iturri horiek kartel edo seinalaren bat izan beharko lukete, herritarrei adierazteko bertako ura edateko txarra dela.

Herrian badira zenbait iturri ur sare publikoari lotutakoak, eta horietatik irtetzen den ura edateko ona da. Beste batzuek, ordea —baserri batzuen inguruan daudenak, esaterako—, ez daude lotuta sare horri, eta, horren ondorioz, ur hori edateko txarra da, edo, behinik behin, ez da gomenagarria edatea.

Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak gutun bat bidali dio Udalari, iturri horien aldamenen kartel edo seinale adierazgarriak ipin ditzan. Izan ere, Osasun Sailaren gutunaren arabera, herritarrek garbi izan behar dute zein ur den edateko ona eta zeinek egin dezakeen kalte.

Udalak berak ere ez daki zein iturritan ipiniko dituen kartelak. Horretarako, Eusko Jaurlaritzari eskatu diote jakinarazteko zein baldintza bete behar dituzten iturriek bertako ura edateko ona dela esateko. Gainera, horrela, gainontzekoak zerratu datu eta gero erabakiko dute zein iturri diren egokiak.

Udalak inoiz egin dituzten iturrietako uren analisiak. Gehienetan ura edateko ona dela diote analisiaren emaitzek, baina udalak udazkenean bitartean uraren kalitatea jaitsi egiten da lehorrean direla eta. Horren ondorioz, ur edateko txar bihurtzen da, besteak beste, ganaduaren hondakiturak direla medio.

Herri inguruan dauden iturri gehienek edateko ur ona ematen duten arren, badira beste batzuk zalantza sor dezaketenak. Izan ere, Lehenengo Errekan dagoen iturrira ur bila joateko ohitura dute elgetar askok. Baina bertako iturri hori ez dago sare publikoari lotuta; horrenbestez, ez da erabat ziurra bertako ura edateko ona den edo ez.



Herri inguruko iturri gehienak ur sare publikoari lotuta daude.

ELKARRIZKETA

ERIKA AZKONA/AEROBIK IRAKASLEA

“Aerobikeko monitorea oso saltseroa izan behar du”

I.A.
Etenaren ostean, datorren martxoaren 8an hasiko dira aerobikeko eskolak. Udalak eskaintzen du zerbitzu hori, eta Erika Azkona gazte eskoriatzarra arduratuko da elgetarrei aerobikeko pausok erakustez.

Noiztik diharduzu aerobika egiten?

15 urte nituela hasi nintzen ikasle modura, eta orain, monitorea izateko titulua ateratzen dihardut. Gainera, Heziketa Fisikoko ikasketak egiten nabil, eta honek zerikusi handia du ikasten nabilenarekin. Gerora spinninga irakasteko asmoa ere badut.

Zer erakutsiko diezu Elgetako ikasleei?

Aerobikaz gain, beste hainbat ariketa fisiko mota irakatsiko dizkiet. Aerobika musikarekin koreografiak egitea da, pauso batzuk konbinatuz. Stepa aerobikaren parekoa da baina oinarri baten gainean egiten dena. Body pump delakoa pisuen bidez ariketak egitean datza. Tonifikazioa ere landuko dugu eta baita

GAP (Gluteoak, Abdominalak, Hankak) ere. Nire asmoa aste bakoitzean gauza ezberdinak egitea da, ikasleak ez aspertzeko. **Zein da zuretzat aerobikak duen alderik politena?**

Niri asko gustatzen zait dantza egitea eta baita jendearekin egotea ere, eta kirol honek horretarako aukera ematen du.

Zer behar du aerobik irakasle on batek?

Aerobikeko eskola batek, ona izan dadin, oso monitorea saltseroa behar du; bestela asko galtzen du eskolak.

Zer lantzen da gehien aerobik eskoletan?

Erresistentzia asko lantzen da, eta zenbait ariketa konkretu eginez baita hankak ere. Hori eskola bakoitzean aldatzen da.

Edozeinek egin dezake aerobika?

Hasieran zaila izan daiteke besoak eta hankak koordinatzea. Baina, berez, denoi zuzendutako kirola da, edozeinek egiteko modukoa.

Nola animatuko zenituzke elgetarrek zure eskoletara joateko?

Bi talde izango dira: gazte-txoena eta helduena. Gazteei esango nieke etortzeko, ongi pasako dutela eta. Helduek, berriz, hainbat arrazoi izaten dituzte etortzeko. Batzuek gorputza zaintzeko eta beste batzuek denborapasa. Ni euren asmoa betetzen saiatuko naiz. Gainera, esango nieke nik ez ditudala aerobikeko pausok bakarrik erakutsiko, eta gauza berriak ikasteko aukera eskainiko diedala.

Datorren astean hasiko dituzue eskolak. Pentsatu duzu zer egin lehen eskolan?

Batzuk lehendik aerobikean ibilitakoak dira. Beraz, baliteke lehen astean aerobikeko ariketak egitea. Baina agian body pump eskolak emango ditut ariketa berriak proba ditzaten. Oraindik ez dut erabaki.

“Aerobika irakasteak dantzarako eta jendearekin egoteko aukera ematen dit”



GOIATZ ARANA



Elurra kentzeko makinak lanean

Elurrak ondorio txarrak ekarri ditu herrira. Udaleko langileek gogor jardun dute asteburuan eta baita astean zehar ere, eta izan da 16 orduz jarraian lan egin duenik ere.

Herrian eze ezik aserri bideetan ere egin dituzte garbiket lanak, eta Azurtzan, ez aurrera ez atzera geratu zen elurra kentzeko makina. Zakarrak batzen dituen kamioia ere ez da aste honetan eguenera arte pasatu./I.A.

LABUR

Elkarriren sinadura bilketa atzeratu egin zuten, eta zapatu honetan batuko dituzte

Bake Konferentziaren aldeko sinadurak jasotzekoa zen Elkarrir joan zen zapatuan Debagoienean. Baina elurra zihardueta eta jenderik apenas zebilen kaleren eta asmoa bertan behera geratu zen. Beraz, hitzordua atzeratu eta Elgetan bilketa bihar, zapatua, egingo dute 12:00etatik 14:00etara, plazan.

Aralar-Zutik koalizioak informazio mahaia ipiniko du domeka eguerdian plazan

Domekan, martxoaren 7an, Elgetako Aralarrek informazio mahaia ipiniko du plazan. Aralar-Zutik koalizioaren programak banatuko dizkiete herritarrei, eta bertan izango dira Elgetako Udaleko Aralarko zinegotziak. Aralartik esan digutenez, “inkesten arabera Gipuzkoan ordezkarria lortuko du Aralar-Zutik koalizioak. Euskal Herriko benetako ezkerrek Madrilen ordezkarria izateko aukerak badaude”.

JAR EZAZU
HEMEN
ZURE
PUBLIZITATEA

Goibekokale



BOLINAGA
METALAK

SALBADOR 7
ELGETA 20690
GIPUZKOA
TEL: 943 76 80 64
FAX: 943 76 83 01



PANA DE ROKUA
TATETXEAL

- Eguneko menua
- Asteburuetan menu berezia
- Espezialitateak: babarrun-jana eta saihetsa

SALBADOR 10 ELGETA TEL. 943 76 82 73

ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Bergara, herri arteko pilota txapelkun

Aste honetako erretratua 1968. urteko irailekoa duzue. Bergara Kirol Elkarteko pilota sailak herri arteko txapelketa irabazi zuen egunekoak, hain zuzen ere. Izan ere, urte hartan lehenengo aldiz jokatu zen herri arteko pilota txapelketa, eta bergarar pilotariek jantzi zituzten txapelak, argazkian ikusten denez.

Finalak Azkoitiko pilotalekuan jokatu ziren irailaren 29an eta Bergara Urretxuri nagusitu zitzaion. Infantil, gazte eta senior mailetako neurketak jokatu ziren eta Bergarak 2-1 irabazi zion Urretxuri. Gazte mailako partidua bakarrik irabazi zuen Urretxuk.

Bergara KE ordezkatzuz, hauek izan ziren txapelkunak: Antxon Arazkonaga eta Juanjo Gonzalez infantil mailako bikotea, Jesus Angel Altuna-Alvaro Gallastegi gazte mailakoa eta, senior mailan, Txomin Garitano-Miguel Etxaniz bikotea.

Hona hemen argazkian azaltzen direnak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Txomin Garitano, Miguel Etxaniz, Juanjo Gonzalez, Jesus Angel Altuna, Alvaro Gallastegi eta Antxon Arazkonaga.

Makurtuta: Luis Mari Garitano, Julio Askasibar eta Jose Mari Igartua.



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARa (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

Argazkia: Bergara KE



DEBA
GARAIA

ETXE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Teleforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92



gizon & emakume

Barrenkalea 35
BERGARA

MUJIKA FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

Barceló



Bidaiak



Eskaintza bereziak Aste Santurako



SICILIA	265€
CROACIA	470€
PALMIRA-DAMASCO	820€
EGIPTO Bilbotik irteera	861€
SAINT LARY	35,75€
LANZAROTE	481€
TENERIFE	399€

Helbide berria: **IBARGARAI 8**

SARRERA DOAN

Aste bukaerako
plana zabal-zabalik

Zozketa

Bi lagunendako afaria
Diskoak
Kontzertuak eta antzerkia

943 71 23 93
UTZI MEZUA!

Eguenetan,
20:30ean eta 22:30ean

Aurkezlea:
Amagoia Lasagabaster



**Ikusiko
duzu!**

SARRERA DOAN
Laguntzaileak:
Bilintx, Arteaga landetxea, Jade, Gili gili





Indartsuago.

Mundu-mailan estandar berri bat sortu da Espres-zerbitzuei, merkantzien garraioari eta logistikari dagokienez.

DHL markapean bildu dira Guipuzcoana Euro Express, paketeen alorrean Europako buru dena, DHL Worldwide Express, aireko garraio espresentan munduko buru dena eta Danzas, aireko eta itsasoko zamen alorrean munduko buru dena. Honela are hobeagoa den zerbitzu globala eskaintzeko. Modu honetan eskaintza, zerbitzu eta aukera gehiago jartzen ditugu zure eskura munduko 220 herrialde baino gehiagotan. Zure beharrak edozein direla ere, horiei erantzuna emateko prest gaude. Jar zaitez gurekin harremanetan eta DHLren indar osoa izango duzu zure negozioaren zerbitzura.

DHL Express Bergara
San Juan Erreka 33
20570 - Bergara
Tel.: 943 763 642
Faxa: 943 765 425

MUNDUA MUGITZEN DUGU 